

Euskadi Ta Askatasunaren Agiria Euskal Herriari

dugun egoeraren berrikuntza nagusienak ongi hausnartu ondoren hartua duen erabakiaren oinarrian dagoen azterketa eskeintzen du ondo-ko lerrotan:

Alde batetik, urteotako borrokari esker, gizarte sail berriak independentziaren aukerara hurbildu dira. Nagusiki, azken sei urteotan ezagutu den garapena azpimarratu beharra dagoela uste dugu. Erresistentzia jarreratik eraikuntza praktika batetara igaro bait gara. Nabarmenarazi nahi dugu, bizi dugun «egoera hobe» honen iturria ezker abertzaleko kide aunitzen bihotzabal-tasunean eta gizartean txertaturik aurrera daraman borroka antolatuan dagoela. Geure borroka-aren azken helburuak erdiesteko bidean, azken urteotan burututakoa egin behar den guztiaren urrats txiki berri bat da. Ez dezala nehorik pentsa zereginak, lanmoldeak eta beste ere hobetu behar ez direnik. Baina on egiten du noizean behin, laudorio eta lausengak hain gutxi maite dituen Ezker abertzaleak bere buruari aitortzea egindako lanak merezi zuela eta bide onean abiarazia dugula askapen borroka.

Bestetik, egoera aldakor honetan zeresan nagusia du «KAS Alternatiba» zahartuaren lekua hartu duen «Alternatiba Demokratikoa» gizarte-ratu izana. Bake proposamen berri horren bidez, oinarri oinarritzko kontzeptu eraginkor bat hedatu da hiru urteotan, Herriari hitza ematearen beharra, Herriak hitza berreskuratu eta hitz hori errespetatzea. Gai izan gara berriro ere, Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin duen gatazkaren muina politikoa dela gizarteratzeko. Agintaritzak espainiar eta frantsesaren zilegitasun «demokratikoa» kolokan jartzeaz gain, kontzeptu positibo bat landatu dugu geure baratzean, euskal demokraziarena. Gatazka gainditzeko edozein demokratek defendatu beharreko gutxiengo demokratikoak (Autodeterminazioa eta Lurraldetasuna) finkatu dira, egoera demokratikoa eskuratzeko gero, norberak bere proiektua garatzeko baldintza berdintsuagotan aritzeko aukera zabalduz. Eta ezker abertzaleak bere berezko proiektu politikoa eta soziala garatzeko bidea libratu du.

Egoera berri honetan nabarmentzen dugun ondorengo aldaketa, mendean hartzen gaituzten bi Estatuek askatasunaren bidean oztupo gisa inposatutako egitura instituzional zatikatzailen porrota da. Euskal Herrian indarrean dagoen marko instituzionala agortua dago. Indar espainiar eta frantses inperialistak bilakatu dira gaur egungo «status quo» instituzionalaren defendatzaile sutsu eta bakarrik. Moncloako Estatutuak, Nafar Foruaren Hobekuntzak eta Frantziapeko euskal lurraldeen ez ezagutzak ez dute euskal herritarren nahi eta beharrei eusteko adina eraginkortasunik. Orain, instituzio egitura horien potentzialitatea defendatu izan dutenek berrek onartzen dute hortik ez dela independentziaruntzko biderik, horretan, ezker abertzaleak soilik defendatu izan duen azterketarekin bat eginez. Eta horregatik, lehen aldiz Euskal Herriarentzat konponbiderako bide bakar bat abian jartzeko atea zabaldu dugu.

Agorpen instituzionalaren ondoan dugu azken hamar urteotan errealtate politikoa eta soziala desitxuratzeko eta Independentziaren aldeko proiektua suntsitzeko espainiarrek inposatu zuten «Paktuen politika»-ren agorpena. Paktugintza horrek zerbait gehiago ematekotan sufrimendua luzatzea besterik ez du ekarriko Euskal Herrira.

Aipatzen ari gara autonomismoaren alde apostu egin zutenak (EA eta PNV alderdi abertzaleak, ELA sindikatua eta abertzale zintzo ugari) bide horren antzutasunaz jabetu direla. Oraingoan bide berri bati ekiteko borondatea agertu dute. Espainiarrekiko gurtz-bidetik ihes eginez eta Euskal Herriaren errepidean barrena abiatuz, ausartki Euskal Herriaren alde eginez, Espainiarrekiko menpekotasun eta loturak hautsiz behingoan. Espainia/Frantzia ala Euskal Herria da hautagai dagoena. Eta hitzetan bederen Euskal Herriaren alde egitearen borondate argia agertzen da. Bidegurutze berri honetan, une historiko honek eskatzen duen ausardiz eta koherentziaz jokatu behar dugu denok.

Espainia eta Frantziako botere faktikoek ez dute Euskal Herriarentzat tarteko alternatiba politikorik. Ez bederen EA eta PNV bezalakoa alderdien kolaborazio berririk gabe. Atzo-gaurko «autonomismo zatikatzaila» eta biharko Autode-



«Ez da bakerik izango ez bada Euskal Herriaren eskubidetan oinarritzen, Hori baita bizi dugun gatazkaren muina, koxka eta mamia»

«ETak bere urrats nagusia emana du, besterik da orain hor sortzen den tartean aurrera egitea, eta ausartki gainera»

«Subirotasunaren aldeko apostu argi eta erabatekoa egiteko garaia da. Euskal Herria desagertaraztea helburu duten indar politiko horiekiko akordio eta loturak hausteko garaia da»

terminazio eta Lurraldetasunean oinarritutako Subiranotasunaren artean ez dago tarte berririk, ez baldin bada beste hogeitaz urtez, esaterako, egiazko konponketa saiestuko lukeen sasi-eskeintza antzu berri bat asmatzen. Baina esan bezala, horrek EA eta PNVren kolaborazioa ezinbestekoa eskatzen du.

«Europa» gune politiko, sozial eta ekonomiko gisa eraikitzen ari da, gai nagusien erabakigunea, Madril eta Parisetik igaroz, zuzen-zuzenean menpean hartzen gaituzten estatu-egituretatik urrunduz doa. Eta independentzi proiektu eraginkorrik gabe, Euskal Herriak bizi duen menpekotasun eta desegituratzea gero eta larriagoa izanen da. Are gehiago mundu mailako kultur eta ekonomi «batasun» proiektu erraldoien aurreko alternatibarik eta tresna-sortzailerik gabe bagaude.

Azkenik, iritzi nagusi bilakatu da Euskal Herrian gehiengoarena den bake nahia konponketa politikoa zentzuzko batekin loturik etorriko dela. Bake nahia, konponketa beharra, elkarrizketa, negoziaketa, ETaren ekintzekin ala gabe, egunero hitzide dugu. Aldaketa ederra duela urte batzuetako «bake nahi aseptiko» harekiko. Euskal gizartean soluziobide politikoa eta praktikoak eman beharko dituen bake-hitzartu baten gose eta egarria nagusitu da. Behar hori ez du soilik ETarekin ez «amaitzeak» sortu; batez ere, euskal gizarteak gatazkaren muin politikoa egunerokotasunean agertarazi, borroka desberdinak berpiztu eta Euskal Herriak jasaten duen erasoari «stop!» tinko eta duin bat jartzearen ondorio nagusi da.

Egoera hitz gutxitan laburbiltzekotan honokoa esango genuke: Euskal Herrian bi proiektu nabarmen daudela, Euskal Herriaren eraikuntza prozesuan sinesten duena bata, gizarte justoa-goa, sustraituagoa posible dela eta horren alde borrokatu behar dela dioena; bestea aldiz, duela mende luze batzuek Espainia eta Frantziaren izenaren hasitako integrazio, irenste eta deskulturazio prozesuari jarraipena eman nahi diona, Euskal Herria munduaren nortasun gabeko zati gisa ikusten duena. Hizkuntza eta irakaskuntza gatazka bat dago Euskal Herrian, bizitza ulertzeko modu bat, lan harremanen bidez eredu sozioekonomiko desberdin bat eraikitzeak nahia. Gatazka hori, betiko gatazka da, aldatu dena gatazka horretan urrats berriak emateko aukera da, indar harremanak aldatzetik datorren egoera berria.

Eta horixe da erronka une historiko honetan, nola jarri Euskal Herriaren proiektua guztion artean abian. Borondate eta argitasunik baldin badago beren buruak herri honen gidaritzat politikorako jarri dituztenen aldetik, euskal gizarte- an bada aski indar eta ulermenik aurrera egiteko.

• Norantza egingo dute indarrek?

Hemen dugu bada Euskal Herria bere etorkizunaren atarian berriro ere. Esperantzaz beterik, Euskal Herriak bizi duen egoera larriaz jabeturik eta kezka haundiz ere ikusten dugu bizi dugun une historiko hau. Galdera nagusi baten baieztoko ala ezeztoko erantzunaren menpe baitago etorkizunaren ardatz nagusia.

Norantza egingo dute indar abertzaleek orain-goan? Gure historia hurbilaren jabe izateak garamatza galdera kezka pausatzerat. Hain zuzen ere, edo hain oker esan beharko genuke, duela hogeitaz urte alderdien jarrerak Estatu espainiarren aldera makurtu ziren. Garai hartako «ezpata soinu»-en beldurraren aitzakitan, esan izan zaigunez, Moncloan eta Zarzuelan erabaki zen Euskal Herria gehiago zatitzea, berezko duen autodeterminatzeko eskubidea armez ukatzen jarraitzea, eta abar luze bat. Geroztik Ezker abertzaleak defendatu du koherentzia eta larrutik pagatuz Euskal Herriaren subiranotasuna, beste indarrek gero eta Espainiarrekiko sare sendagoan erortzen ziren artean.

Honetan ere baikortasunez begiratzen dugu etorkizuna. Hogeitaz urteotako bidean bildutako fruituen eskasiak eta ustelak eta subiranotasunaren bidean jaso ditzakegunen distirak ez du eta alderik. Urte luzeak izan dira, baina azkenean pozgarria da bestek ere Independentzia eskuratzeko funtsezko urratsak zeintzu diren ohar-tzen direla ikustea. Etorkizuneko askatasuna beti izanen da orango menpekotasuna baino hobe.

Horrek ez du esan nahi aurrean dugun bidea ez denik zaila eta arriskuz beterikoa izanen. Abertzale, ezkertiar eta demokrata guztiek zintzotasun eta duintasun erabateko erantzutea eskatzen digu aurrean dugun erronkak; are Espainia eta Frantziaren jarreraitsu eta itxia ikusiz.

Gure nahi sakona da beraz, ez dadila berriro ere Ezker abertzalea bakarrik aritu guztion zeregin den horretan. Baina, hala balitz ere, guk aurrera eginen dugu orainartean bezainbesteko poz eta grinaz, milaka euskal herritar eta gudariek erakutsitako bideari jarraituz.

• Aurrean dugun erronka

Esana dugu, agiri honen hasieran, aurrean dugun fase politikoaren erronka eta ezaugarri nagusia Euskal Herriak, bere osotasunean, muga autonomiko eta estatalka gaindituz, subiranotasuna eskuratu dueneko izan behar dela. Oinarria jartzea. Ez baitgaude lehengo toki berean, ez goaz duela hogeitaz urte galdutako aukera «berreskuratzea» soilik, baizik eta urrats